

**Elkarteanek alderdi politikoei hauteskunde-programetarako
proposatzen dizkien lehentasunezko 15 ildoak
(2023ko Foru eta Udal Hauteskundeak)**

Elkarteanek lehentasunezko 15 ildo hauek proposatzen ditu foru-eta udal-eremuetan Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa ezartzen dela ziurtatzeko. Betiere, desgaitasun fisikoa duten emakumeek eta gizonek beren eskubide guztiak gauzatzeko, komunitatean besteen aukera berdinekin parte hartzeko eta bizimodu independentea garatzeko baldintza gokiekin.

- 1) Irisgarritasun Unibertsalaren arloko araudia betetzen dela bermatzea, horretarako araudi egokia (udal-ordenantzak etab.) eta tokiko plangintza egin eta hedatuz irisgarritasun unibertsalaren baldintza guztien betearazpena bermatzeko oinarrizko eremuetan, hala nola etxebizitza publiko eta pribatuan, espazio publikoetan, ikastetxeetan, eraikuntza publikoan, garraioan, komunikazioan, aisialdian, kulturean, kirolean eta osasunean, hiri-espazioen eta eraikinen segurtasuna bermatuz, desgaitasuna duten emakumeentzako gune kritikoak edo arriskutsuak kontuan hartuta.**
- 2) Udalerrietan mugikortasun-politikak gauzatzea, hiri-inguruan gune, azpiegitura eta garraiorako eta mugikortasunerako gailu irisgarri eta seguruak diseinatuz, besteak beste mugikortasun urriko pertsonak kontuan hartuz: hiriko eta hiriz kanpoko garraio irisgarria, bizikleta egokituak, espazio publikoak, hirigintza, oinezkoentzako oztoporik gabeko ibilbide irisgarriak..., kontuan hartuta desgaitasuna duten emakumeek eta gizonek bestelako erabilera ematen dietela eguneroko bizitzan (aisialdian, zainketak ematean, etab.).**
- 3) Bizimodu Independentearako Eredua sustatzea, prestazio eta euskarriak barne hartzen dituen Gizarte Zerbitzu Sistema hedatuz, pertsona bakoitzak non, nola eta norekin bizi nahi duen erabakitze aukera izan dezan, bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera derrigortu gabe, komunitatetik isolatuta edo baztertuta egon gabe. Zehazki: bizimodu independenterako eta komunitatean parte hartzeko prestazio ekonomiko nahikoa**

(laguntza pertsonal bermatua), zerbitzu eta prestazioen eskaintza zabala eta askotarikoa, bizimodu independentea eta desinstituzionalizazio-prozesuak bultzatzera bideratua, koordainketaren arloan aplikatzekoak diren neurrietan desgaitasunaren gainkostua kontuan hartuta, arreta berezia jarriz haiengan gauzaten den gehiegizko babesaren ondorioz eta aurretik zehaztutako bidea markatzen duten genero-rol eta -estereotipoen ondorioz sarbidea eta parte-hartzea mugatzen zaien neska eta emakume desgaituei.

- 4) **Etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko eskubidea bermatzea**, ekintza positiboko neurriak sustatuz desgaitasuna duten emakumeak eta gizonak etxebizitza eskura dezaten, bizimodu independenterako beharrezko baldintza bezala, eta aurrekontu-hornidura gehituz eta etxebizitza-parke osoan irisgarritasun unibertsala izateko laguntzak eskuratzeko baldintzak bultzatuz, egoera bereziak kontuan hartuta, hala nola etxegabetze egoerak, dibortzioa gertatuz gero etxetik irtetea adingabeak ardurapean izanda, indarkeria matxistaren biktima izanez gero, etab.
- 5) **Autonomia pertsonalerako eta komunitatean parte hartzeko laguntza-produktuen eskaintza bermatzea**. Eskaintza zabala, anitza, laguntza publikoekin finantzatutakoa, indibidualizatua, desgaitasuna duen emakume eta gizon bakoitzaren behar aldakorretara etengabe egokitzen dena, eta baita beren errealitatera, ingurura eta bizimodura ere, etengabe berritzen dena, merkatuko garapen teknologikoak barne hartuz.
- 6) Eremu bakoitzean (genero-indarkeria edo indarkeria matxista, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, osasuna, kirola kultura, garraioa etab.) eskumena duten administrazio publiko guztien arteko **koordinazio egokia hedatzea**, pertsonen osotasuna zeharkakotasunaren bidez landuz, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik zentralizatutako esku-hartze ereduaren bidez, horiek arduratuko baitira kasua koordinatzeaz eta komunitatean dauden laguntza eta baliabide guztiak dinamizatzeaz, irisgarritasunari dagokionez pertsona bakoitzaren beharretara egokitu daitezen.
- 7) **Udal-eskumeneko Etxeko Laguntza Zerbitzua garatzea**, behar duten pertsona guztiek beren beharrak ase ditzaten zerbitzua modu

egokian, behar adina eta malgutasunez erabiltzeko aukera izango dutela ziurtatuz, zerbitzuaren garapen eta diseinuan erabiltzaileen parte-hartzea bultzatuz eta bizilekuaren araberako desberdintasunak kenduz.

8) Autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako sistemako prestazio ekonomikoak garatzea, eta baita zaintzaileak laguntzeko beste edozein prestazio edo zerbitzu ere, horren ondorioz desgaitasuna duten pertsonak baztertu gabe, eta mendekotasun-egoeran dauden beste pertsona batzuk zaindu edo laguntzeko zereginak burutzeko gaitasunik ez dutenaren ustea zabaltzea ekidinez.

9) Bakoitzak bere eskumenaren eremuan jarduketak eta eremuak garatzea (besteak beste: enplegurako laguntzak eta enpresentzako kenkari fiskalak), desgaitasuna duten emakumeek eta gizonak askatasunez aukeratu edo onartutako lanaren bidez bizimodua ateratzeko eskubidea gauza dezaten lan-merkatu eta lan-inguru ireki inklusibo eta irisgarrian, enplegu arrunta, autoenplegua eta ekintzailtza, eta enplegu publikoa lortu eta mantentzea bultzatuz, ekintza positiboko neurriak eta lanpostuetako egokitzapenak sustatuz, desgaitasuna duten emakumeengan arreta jarrita, lan-merkatuan sartzeko eta lanari eusteko zailtasun handiagoak baitituzte.

10) Udal-ordenantzak zehaztu eta hedatzea, eta aparkatzeko txartelaren eta erreserbatutako aparkalekuen eremuan irizpideak bateratzea, desgaitasuna duten pertsonentzako neurri egokiak jaso ditzaten. Beste gai batzuen artean, mugikortasun urriko pertsonentzako aparkatzeko txartelen erabilera egokia ziurtatzea, aplikatzekoak diren irizpideak bateratuz, udalerrien arten desberdintasunik egon ez dadin.

11) Aisialdi, kultura eta kirol eskaintza egokia, irisgarria eta behar bestekoa bermatzea, adin eta behar desberdinetara egokituak, desgaitasuna duten emakume eta gizon guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten komunitateko jardueretan, gainerako herritarrekin batera.

- 12) Desgaitasunaren gainkostua kontuan hartuko duten neurri fiskalak garatzea** (hobariak, kenkariak, salbuespenak edo zerga-arinketak), gaitasun ekonomikoa aukera-berdintasunean egon dadin gainerako pertsonekin alderatuta eta bizimodu independenteko prozesuak bultzatuz.
- 13) Desgaitasuna duten emakumeek eta gizonek, ordezkatzan dituzten erakunde bidez, euren dagozkien politika ofizialak lantzen, gauzatzen, jarraipena egiten eta ebaluatzen parte har dezaten ziurtatzea, kode zibilaren printzipioa betez.** Horretarako, sustatu egin behar dira elkarte-sarea, elkarten dinamizazioa, eta Elkarte Mugimenduak pertsona ahulenen eskubide eta interesak defendatu eta aldarrikatzerakoan duen berezko eta funtsezko eginkizuna, emakumeentzako ekintza positiboak abiaraziz, erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartze txikiagoa baitute.
- 14) Euskadiko Hirugarren Sektore sozialeko gizarte-ekimenaren arloko erakundeek garatzen dituzten interes orokorreko jardueren jasangarritasuna ziurtatu eta bermatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren garapenean** (*"pertsonak artatzeko prestazio eta zerbitzu berriak martxan jartzearekin lotuta dauden jarduera berritzaile eta esperimentalak; elkarte-sarea babesteko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko jarduerak; plangintza hobetzerak, zerbitzuen antolaketako eta arretaren eskaintzako kalitatea bermatzerak eta hobetzerak, eta praktika profesionala hobetzerak zuzenduta dauden ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduerak"*) Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean aintzatesten diren formula juridikoak aplikatuz: hainbat urtetarako lankidetzak-hitzarmenak eta lankidetzarako esparru-akordioak.
- 15) Desgaitasuna duten emakumeen errealitatea eta premiak txertatzea emakumeen aurkako indarkeria matxista jasaten dituzten desgaitasuna duten emakumeentzako sentsibilizazioko, prebentziozko, lagun egiteko, arreta emateko, babesteko eta eragindako kaltea konpontzeko politiketan, kontuan hartuta jasaten dituzten era askotako indarkeria-motak, izan ditzaketan erasotzaile anitzak, haien bizilekua, dituzten laguntzak, eta abar.**